

EUSKADIKO EKONOMIAKO VI. OLIMPIADA

2014ko APIRILAREN 11a

AZTERKETARI BURUZKO INFORMAZIOA

- *Azterketak bigarren mailako batxiergoko "Ekonomia eta Enpresen Antolaketa"ri dagozkion bost galdera ditu. Hala ere, ikasleak gehienez hauetako bi galdera ordezkatzeko aukera izango du batxiergoko lehen mailako "Ekonomia" irakasgaiko 2 galderagatik*
- *Galdera bakoitzak 2 puntutako balioa du. Galdekizunaren ulermen gaitasuna eta erantzunetan arrazoiketa baloratuko da bereziki.*
- *Azterketaren iraupena ordu 2 eta 30 minututakoa da.*

EKONOMIA ETA ENPRESEN ANTOLAKETA

1.GALDERA

Eredu kooperatibistak etorkizuna du, Fagor-en krisiaren gorabehera

Espanian 23.000 kooperatiba inguru daude; gehienak zerbitzuen sektorekoak dira.

Ereduak ondo funtzionatzen duelako proba kreditu kooperatibak dira, haien berandutza finantza-sistema osoarena baino txikiagoa baita.

Cristina G. Bolinches

2013/11/06

Kooperatibismoaren puntu gorena da, eta industria-eredua langileekin eta komunitatearekin arduratsuagoa eta konprometituagoa izan litekeela erakusten du. Hala

ere, Mondragón taldeko ustezko oinarri sendoetako batek porrot egiteak lotsagarri utzi du eredu kooperatibista osoa.

“Fagor-ekin gertatutakoak ez du zertan eredu zalantzan jarri Espainian; izan ere, kapitalismoa ere ez da zalantzan jarri, enpresa kapitalista batzuk hartzekodunen konkurtsuan egon arren” adierazi du Estrella Trincado Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Pentsamendu Ekonomikoko Historiako irakasleak. “Mondragónek urte asko daramatza nazioarteko arrakasta duen multzoa izaten” zehaztu du Ekonomia eta Enpresa Zientzien Fakultateko irakasleak.

Orduan, nola izan daiteke Espainiako eta mundu osoko kooperatibismoaren erreferentziak 5.500 langile baino gehiago kaleratzea, horietatik ia 2.000, gainera, oraindik beren ondarearen bidez erantzun beharko duten ez dakiten bazkide kooperatibistak direla?

Egokitu, bizirauteko

“Orokortzea bidegabea da: zenbait kooperatibak ondo funtzionatzen dute eta beste batzuek ez; hori besterik ez da” adierazi du Manuel Romera IE Business School-eko Finantza Sektoreko zuzendariak. “Beharbada arazoa da Fagor-ek lehiakorra izateari utzi diola. Haren etxetresna elektrikoek lehiakorrak izateari utzi diote, adibidez, Korean fabrikatzen direnen aldean. Asiarrak merkatu osoa eskuratzen ari dira” azaldu du negozio eskolako irakasleak.

“Enpresak ez dira betikoak, eta munduko aldaketen jakinaren gainean egon behar da” azaldu du Cándido Muñoz Ciudad Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Ekonomia Aplikatuko katedradunak. Mondragón taldeak berak aitortu du atzeratuta doala, etxetresna elektrikoaren sektoreko aldaketetara eta “joko-arau” berrietara egokitzeko orduan.

Gauzak horrela, horren berregituraketa berandu heldu da. Hori onartu dute giza baliabideetan oinarritutako ekonomia bere egiten dutenek. “Fagor-en arazoa salmentek behea jotzea izan da: 1.800 milioi eurokoak ziren, eta azken urtean 500 milioi eurokoak izan dira. Nahiz eta haren produktibitatea hobetzeko neurriak hartu, soldatak murriztu, Mondragón taldeko beste kooperatiba batzuek 70 milioi euro eman, eta elkartasuna eskatu zen, ezin izan da egin, eta ez dago hobetzeko tarterik” aitortu du Juan Antonio Pedreño Gizarte Ekonomiako Espainiako Enpresa Konfederazioko (Cepes) presidentek.

Kooperatibismoaren zifrak Espainian

Espainian gaur egun 22.000 eta 23.000 kooperatiba inguru daude, Cepesen estatistiken arabera. Haren presidentek onartu du ereduak enplegua murriztu duela, krisia abiarazi zenetik, baina eragina txikiagoa izan dela adierazi du, “enpleguari eutsi ahal izateko, sektoreak soldata % 30 edo % 40 murriztu baitu”. Hala ere, lanpostuen bolumena “murriztu da: 315.000tik 290.000ra”. “Oso gogorra da, baina zazpi urteko krisia da. Kooperatibismoaren balioei eutsi zaie, elkartasunari eutsi zaio, baina krisia ez da leheneratu” zehaztu du Trincadok.

Juan Antonio Pedreñoren arabera, bost autonomia erkidego daude kooperatibismoaren buruan: Katalunia, Andaluzia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Murtzia eta Valentzia. Nahiz eta taldeko adimenak uste dezakeen nekazaritza sektorea Espainiako mugimendu kooperatibistaren ardatza dela, ez da horrela gertatzen. “Zerbitzuetako enpresak Espainiako sektore kooperatibistaren ia % 50 dira; horien atzetik, industria sektorekoak (Mondragón taldea da garrantzitsuenak) eta nekazaritza sektorekoak daude. Kontuan hartu behar da, eredu horri lotuta, hezkuntza sektoreak funtsezko eginkizuna duela, Espainian 700 irakaskuntza kooperatiba baino gehiago baitaude” zehaztu du. “Gainera, antzeman dugu, krisia dela eta, sozietate asko kooperatiba bihurtu direla, arriskua eta onura partekatzeko asmoz, bi pertsonak kooperatiba bat osa baitezakete”.

Kooperatibak kontzeptu orokorrago baten (“gizarte ekonomia” izenekoak) barnean daude, horretan lan sozietateak, laneratzeko enpresak, mutualitateak eta fundazioak edo elkarteak ere sartzen direla. CEPESen arabera, 2012an sektorearen fakturazioa 145.000 milioi eurotik gorakoa izan zen. Horietatik 56.600 milioi euro kooperatibenak ziren. “Guretzat pertsona mamia da, baita inplikazio, demokrazia eta berdintasun balioak ere. Kapitala beharrezko ondasuna da, baina pertsonaren mende dago” adierazi du Pedreñok.

ZERA ESKATZEN DA:

- a) Negritaz dauden hitzen esanahia azal ezazu.
- b) Tamaina, jarduera-sektorea, jardun-eremua eta kapitalaren titulartasunaren arabera, nola sailkatuko zenuke Mondragoi Korporazioa?
- c) Zein da sozietate kooperatibo baten eta gainerako sozietate moten arteko diferentzia?
- d) Artikulu honetan oinarituz, zer deritzozu kooperatiben etorkizunari buruz?

2.GALDERA

ZPS enpresak gizonezkoen zapatilak fabrikatzen ditu. Urte honetarako errentagarritasun-atalasea kalkulatu behar du. Gizonezkoen zapatilak ekoizteko beharrezkoak diren materialak eta horien kostuak, dolarretan, ondorengo taula honetan daude:

"ZPS ZAPATOS"				
ZAPATILLA CABALLERO				
Materia Prima	Costo total MP	N° Unidades producidas	Costo unitario MP	
Cuero fino nappa	\$ 1.965,09	261 unid.	\$ 7,54	
Forro badana	\$ 389,65	261 unid.	\$ 1,49	
Descarner	\$ 391,90	261 unid.	\$ 1,50	
Planta sintética	\$ 1.298,50	261 unid.	\$ 4,98	
Guadana	\$ 134,35	261 unid.	\$ 0,52	
Cartón de plantilla	\$ 129,35	261 unid.	\$ 0,50	
Hebilla	\$ 173,80	261 unid.	\$ 0,67	
Fomix	\$ 28,07	261 unid.	\$ 0,11	
Pegamento	\$ 261,84	261 unid.	\$ 1,00	
Acabado de suela	\$ 33,01	261 unid.	\$ 0,13	
Hilo de rosca nylon	\$ 51,80	261 unid.	\$ 0,20	
Lija Fina	\$ 38,93	261 unid.	\$ 0,15	
Totales	\$ 4.896,30	261 unid.	\$ 18,78	

Iturria: <http://www.monografias.com/> . Aurrekontuak: Zapatagintzan kostuen baloraketa.

Zapatila-pare bakoitza unitate bat dela ulertzen da. Gainera, ondorengo kostu hauek jasan behar ditu: eraikinaren alokairua, 2.400 dolar; lanesku finkoa, 2.500 dolar; bestelako kostu aldakorrak, 14,22 dolar unitate bakoitzeko; bestelako kostu finkoak, 1.100 dolar.


Zera eskatzen da:

- a) Enpresa baten kostu finkoak eta kostu aldakorrak definitzea.
- b) Zapatila-pare baten salmenta prezioa 41 dolarretan zehazten bada, errentagarritasun-atalasea defini eta kalkula ezazu.
- c) Guztira, 1.500 zapatila-pare saldu nahi bada, urteko mozkin osoa kalkula ezazu.
- d) Enpresa, lanesku finkoa ez izatea eta ekoiztutako unitate bakoitzeko 7 dolar ordaintzea pentsatzen ari da. Gainerako faktoreak berdin mantentzen badira, b) ataleko erantzuna aldatuko al da? Eta, c) atalekoa? Erantzuna azaltzeko grafiko bat erabil ezazu.

3. GALDERA

Marketinaren ikuspuntutik:

- Ondoko marrazki honetan adierazten diren elementu bakoitzaren definizioa eman itzazu (Produktua, Prezioa, Banaketa, Sustapena) eta
- Osotasunean horien guztien esanahia komenta ezazu.



4. GALDERA

CARPETA, S.A. enpresak bulegoko materialaren merkaturatzean dihardu. Normalean, biltegian izandako segurtasun-stocka 100 unitatekoa da. Erosketa-eskaerak jasotzeko epea 10 egunekoa da eta eskaera bakoitzaren bolumena 500 unitatekoa da. Hilero batez besteko salmenta 300 unitatekoa da. Oharra: 30 eguneko hila.

Ondokoak kalkula itzazu:

- a) Eskabide-puntua
- b) Stockaren batez besteko maila
- c) Errotazio-indizea
- d) Biltegiko aldaketen grafikoa
- e) Stock haustura batek, zer suposatzen du?

5. GALDERA

KASTROGAS S.A. enpresak bi inbertsio-proiektu ebaluatzen ditu, proiektu horien parametroak ondorengo hauek izanik:

	Hasierako despoltsapena	Kutxako fluxua 1. urtea	Kutxako fluxua 2. urtea	Kutxako fluxua 3. urtea
A proiektua	10.000	2.000	6.000	8.000
B proiektua	8.000	3.000	5.000	3.000

- a) Inbertsio bakoitzaren berreskuratze-denbora eta balio eguneratu garbia zehaztu itzazu, urteko interes-tasa %10ekoa izanik.
- b) Enpresarentzat hobea den aukera zehaztean, bi irizpide horiek bat etortzen dira? Erantzuna arrazoitu ezazu.
- c) Bai berreskuratze-denbora, bai balio eguneratu garbia, inbertsioak baloratzeko eta hautatzeko metodoak dira. Zertan ezberdintzen dira?

EKONOMIA

1. GALDERA

Enpresa batek, unitate bakoitzeko prezioa 10 eurokoa denean 2.000 unitate saltzen baditu eta, 8 eurokoa denean 3.000 unitate:

- a) Elastikotasunari dagokionez, zein motatakoa da eskaria?
- b) Zeintzuk dira prezio bakoitzeko sarrerak?
- c) Zer egin beharko luke enpresak prezioarekin?
- d) Eskaria irudika ezazu.

2. GALDERA

Gaur egun, beste monetarekiko euroaren kanbio-tasak ondoko hauek dira:

Moneta		Kanbio-tasa 2014/apirila/X eguna
USD	Estatu Batuetako Dolarri	1,3638
JPY	Japoniar Yen	139,26
GBP	Libera esterlina	0,83160

Inbertitzaile batek 10.000 euro ditu eta, 2014.eko apirilaren X egunean, urte bateko eperako, eurotan dagoen gordailu batean ala bestelako moneta batean eratuta dagoen gordailu batean inbertitzearen aukerak ebaluatzen dago (hau da, gordailuaren mugaeguna 2015eko apirilaren X egunean izango da).

Egindako kalkuluen arabera, urte bateko gordailuaren ordainketak moneta bakoitzarekin ondorengo hauek izango lirateke:

Moneta		Ordainketa 2015/apirila/X eguna
Euro	Euro	10.400 euro
USD	Estatu Batuetako Dolar	13.816,8 dolar
JPY	Japoniar Yen	1.406.526,0 yen
GBP	Libera esterlina	8.399,16 libera

Urte barru, beste monetarekiko aurreikusitako euroaren kanbio-tasak ondoko hauek dira:

Moneta		Kanbio-tasa 2015/apirila/X eguna
USD	Estatu Batuetako Dolar	1,35
JPY	Japoniar Yen	137,17
GBP	Libera esterlina	0,8109

ZERA GALDETZEN DA:

- a) Lehenengo taulan zehaztutako kanbio-tasa bakoitzaren esanahia azal ezazu.
- b) Inbertitzaileak zein monetan inbertitu beharko lukeen esan ezazu.

emian ta zabal zaku



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea